


1997ko otsailak 23 - 1.614 zenbakia - 300 pezeta (BEZ barne) / 14 libera

ARGIA



JOSEBA PERMACH

«Urte askotarako
sufirimendu ugari
dugulakoan nago»

EKONOMIA

Pribatizazioen pastela
banku eta
multinazionalen
ahotara

IÑAKI MENDIGUREN

«Itzulpengintzaz
lotsatzea absurdua da,
sorkuntza bera
bultzatzen baitu»




BERNARDO ESTORNES



«ZAIL DAUKATE EUSKARAZKO ENTZIKLOPEDIEK»

EUSKARAZKO KULTURGINTZA HAMABOST EGUNEZ KORRIKA



HOGETA BOST URTEZ ATERBE ESKAS ETA ZAHARKITUETAN EGON ONDOAN, MAULEKO IKASTOLAKO 65 HAUREK EGOITZA EGOKI ETA ERABILGARRIAK BILATZEN DITUZTE: LAGUN ITZAZUE

LAGUNTZA BONOA

SOHÜTAN IKASTOLA BERRIA ERAIKITZEN LAGUNDU NAHI DUT

- ☐ 200 lib./4.500 pta. emanez (txartela postaz ardietsiko dut).
- ☐ Txeketz (HABIAREN izenean).
- ☐ Giro edo Mandat postalez HABIAREN zuzenbidera.

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Probintzia


Posta kodea

6. Politika kronika. XABIER LETONA.
8. Joseba Permach: «Segurtasunagatik Mahaiaren talde ordezkaria ez da publiko egin». XABIER LETONA.
12. Hego Koreako langileek baldintzatua dute erreforma. PAU PONS
14. Pribatizazioen pastela banku eta multinazionalen ahotan. DANIEL UDALAITZ.
17. Francesc Cabanes pilotari valentziarrak euskal pilotariekin jokatu zuen maiz. Genoves, Valentziako pilotaren maisu eta ikur. TONI MOLLA.
20. Euskaltzaleen Elkarguneak, Eak eta HBk ordenantza hau ez dela batere zehatza diote. Cuerdaren hitz politikak. IDOIA TORREGARAI
22. Bernardo Estornes: «Aitzolek inon ikusi ez dudana ezaugarria zuen, gazteria promozionatzen zuen». JOXEMI SAIZAR.
27. Euskal Herriko Basoak gehigarria. UNAI BREA, MYRIAM GARTZIA, UNAI LOIDI eta ANDONI URBISTONDO.
44. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
47. Otsailaren 20an abiatuko da Korrika Kulturala. Euskarazko kulturagintza hamabost egunez korrika. JON ABRIL.
50. Inaki Mendiguren: «Itzulpengintzaz lotsatzea absurdua da, sorkuntza bera bultzatzen baitu». MAITE ARTOLA.
53. Argitalpenak. J.J. PETRIKORENA.
56. Irrati-Telebista. MIKEL JAUREGI.
60. Aukeran. MIKEL JAUREGI.
64. Denborapasa.
66. Trebiño auzia, hemen ziri han mara. TXEMA RAMIREZ.




JOSEBA PERMACH: Donostiako Udaleko Herri Batasunako zinegotzi taldeko burua da 27 urteko gazte hau. Halaber, hemendik aurrera Mahai Nazionalaren lana egingo duen ordezkotaldearen musu ezagunetako bat da orain, Jone Goirizelaiarekin batera. Berak ere, sufrimendu gehiago iragarri du guztiontzat. /8

BERNARDO ESTORNES: Argitaratu berri duen biografiak eman digu haria eta Añamendi entziklopediaren aitzak hau egiten izandako gorabeherak kontatu dizkigu. Izabarra izaki, erronkaria aztertzean ere indar asko eman ditu, baina oraindik gogotsu dabil lanean. Ia euskarazko lehen errotulua Donostian jarri zuten hartan bezainbeste. /22



KORRIKA KULTURALA: Otsailaren 20an abiatuta eta hamabost egunetan zehar euskarazko kulturagintzaren errepaso zabala eskainiko digu Korrika Kulturalak, han-hemen antolatu diren kontzertu, antzerki, pailazoen emanaldi, poesia errezitaldi, mahainguru, bertso saio eta abarren bitartez. Honen guztiaren berri eman dizuegu zehatz mehatz. /47



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua

Argitarapen honen editorki laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:






PENTSAMENDU GARAIDEA

EKONOMIAREN HISTORIA (I)


John K. Galbraith



EKONOMIAREN HISTORIA (I eta II). Ezin pedagogikoa eta jadanik *best seller* bihurtu den liburu honetan ekonomiaren historia (Adam Smith, Keynes, Marx eta beste asko) laburra azaltzen zaigu, euskaraz eta ekonomilari ospetsua den John Galbraith-en eskutik.

ETIKA PROTESTANTEA ETA KAPITALISMOAREN IZPIRITUA Max Weber soziologo alemaniarren liburu famatuena dugu. Bertan aztertzen da kapitalismoaren garapenean ideologia protestanteak izan zuen eragin handia.

LIBURUDENDETAN JADANIK!!




GAIK ARGITALDARIA



PENTSAMENDU GARAIDEA

EKONOMIAREN HISTORIA (II)

John K. Galbraith



PENTSAMENDU GARAIDEA

ETIKA PROTESTANTEA ETA KAPITALISMOAREN IZPIRITUA

Max Weber





ARGIAk niri egindako elkarrizketari buruzko zuzenketak

MIKEL Asurmendik egin didan elkarrizketa luzean, luzeegi mintzo delarik defendiatzen baita tesia eta antitesia eta azkenean deus, nik erran eta pentsatzen ez ditudan gauzaño batzuk zuzendu nahi nituzke:

— Euskal antzerkigintza bada. Aski da Mendigurenen «Hilerri itxia» irakurtzea konprenitzeko ona dela eta biziki hemengoa, hots euskalduna. Baina antzerki hori ez dute ematen profesionalek, ene ustez sobera hemengoa delako. Sobera euskalduna? Antzerkiak antzeztuak ez dirclarik antzerkirik ez da (antzerkilari profesionalak balira Iparraldean gauza bera litzateke, Hego eta Iparraldearen oposatze horrek akitarazten nau ondarean).

— Sastrek erraten duen bezala Madrilén edo Parisen ez badute arazo hori ebazten, biziki onak gintezke euskaldunok egin bageneza.

— Badakit badirela Hegoaldean talde amateurak haizea alde edo kontra aspaldi honetan lanean ari direnak Azpeitin, Deban eta abarren, eta heritik ateratu obrak antzeztu dituztela. Hau antzerki amateurren beharra azpimarratzeko.

— Iruditzen zait Hegoaldean gizarte gaiak gehiago ateratzen direla bertularien ahotik antzerkiz baino. Herri-antzerkiari funtzio hori diot ematen. Beraz antzerki amateurra ez da herri-antzerkiari mugatzen.

— Azkenik ene deklarazioak ARGIAk irakurritz ulertzen dut hobe dudala heda-

bideetarik desagertzea eta antzerki lanari lotzea erran ditudan harrokeria zenbaiten gauzatzea saiatzeko.

Barkatu Mikel Asurmendi kazetariari hain oihal txarra eskainirik bere jauntzia-
ren egiteko.

ANTTON LUKU

EZTERENZUBI (NAFARROA BEHEREA)

Irtenbidea udal euskaltegietako irakasle laguntzaileontzat

URTEAK joan urteak etorri, udal euskaltegietako irakasle laguntzaileon egoera ez da ezertxo ere aldatu. Bidegabekeriak bere hartan dirau. Dagokion agintaria euskalduntze prozesuaren inguruan mintzo zaigun bakoitzean aho betez aurreratzen ditu aurrerapenen ontasunak; ez dago gaizki. Jakin beharko zenukete, ordea, bien bitartean irakasle laguntzaileok umore gazi-gozoz entzun-irakurtzen ditugula adierazpen horiek guztiak, ez baikaituzte gogoan hartzen. Jakitun baitira langile-kolektibo berean dihardugunok izendun deituriko irakasleen adinako ordainik ez dugula jasotzen, haiek egiten duten lana burutzen dugularik. Konponbiderako elkarrizketan saiatu gara, bai Jokin Azkue HABEko zuzendariarekin bai Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuarekin. Lehenak erantzun bai baina irtenbiderik ez digu eman; bigarrenak ezta ihardetsi ere. Honen aurrean, zeri eta nola ekin orain artekoaz gaindi? Aurrerantzean, bide berriak irekitzeari emango diogu, dela euskaltegien zuzendarien eta sindikatuen laguntzaz, dela udaletako arduradunen arreta erakarrit, dela dagozkigun lege-bideak jorratuz. Beti ere okerra erakunde eskudunek zuzen dezaten.

NEKANE AMOZARRAIN ETA ASIER TREKU

(URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL

EUSKALTEGIKO IRAKASLE

LAGUNTZAILEAK)

HIRUKO

TXIKIAN

Hautsi, etsi, eutsi

Agintariek eta enperaeuek, ez dute gatazka hau onartzen eta indibidualizatu nahi dute kolektiboan den arazoa. Ero, gaizto, kriminal, faszista... Heldutasunik ez, eta berez, sortzez, ezgizatiar den multzo jakin bateko partaideak omen gara herri txiki honentzat independentzia galdetzen dugun guztiak. Genetikoa omen gara. Eta zigorra dugu merezi. Gure behar kolektiboa ez onartzeak suposatzen duen zigor kolektiboaz gain, banaka banaka txiki-txiki egin nahi gaituzte. Euskal Herria herria legeaz haustearaz gain, independentzia-zaleak banaka banaka hautsi. Suntsi.

Eta kartzelaz saritzen gaituzte. Gure eskakizunak euren moduan egin omen genitzake. ETAk aurkeztu egin du berea. Gatazkaren parte kualifikatua den aldetik, eskertzekoa. Baina mezulariak, banaka zigortzea erabaki dute. Eta nik diot, hain gerri gogorra duen demokraziak joko honetarako ez du balio, baloia —jokoaren ardatza— enoratu eta jokalaria egurtzen duen kirolariak balio ez duen bezalaxe. Katsue, Txo eta Beltza. Konpetizioa luzea da eta zuen beharra zegoen. Eta barkatu, ez etsika eta eutsika jardutea ez baita aski izan. Eslogan hutsek ere hautsi gaitzaketela alegia.

JOXE MARI OSTOLAZA



ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.

LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.

ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

Kontseilu Editorialeko

Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

Erredakzioa: Arantxa Frásun, Mikel Jauregi, Xabier Letona, Juan Joxe Petrikorena, Arritxu Zelaia.

Maketazioa: Beldaitz Goia.

Grafismoa: Aitzol Goikoetxea.

Administrazioa: Jasone Larrarte.

Harpidetzak: Olatz Korta.

Hedapena: Ixabel Bereziartua.

Publizitatea: Inigo Txintxurreta, Aloña Soraluze

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.

pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

BIZKAIA: Zababuru 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxa: 59 47 60 01.

NAFARROA: Iratxecko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruña.

Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.

INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Manifestazio eskubideaz

ETA-K 1995ean bere historian eragin-dako heriotz kopuru txikienetakoa zela eta (bost heriotz), analista askok ahultasun seinaleztat hartu zuen kopuru hori. Erakunde baten indarra heriotzetan neurtuz gero, arrazoi zuten. Zer gertatzen da, baina, iragan astelehenean hildako Modesto Rico polizia nazionalarekin ETAk otsailaren erdirako lau pertsona hil dituenen? ETA izugarri indartu dela aste bakar batzuetan? ETArekin indarra ezin da unean uneko atentatuen arabera neurtu, arazoa atentatuek eragindako kalteak baino larriagoa eta sakonagoa delako. Zer kontu behar digute orain etologo eta gatazkologo guztiek?

BILBON HBren manifestazioa hasi aurretik gertatutakoek ere -une hartako balei eta zaurituei larritasuna kendu gura barik- azalekoa baino errealtate sakonagoa erakusten dute. Batetik, Ertzaintza eta ENAMen arteko zanga mugagabea dirudiena erakusten dute; baina bestetik, HBrekiko zokoratze prozesuan balizko ilegalizazioaren metan belar multzo berri bat jarri da, ilegalizazio eta zokoratze horretan HB une oro istiluekin lotzea oso garrantzitsua baita. Ez Madrileko gobernuak ezta Hego Euskal Herrikoek ere, ezin dute Ezker Abertzalearen jardura osoa kriminalizatu. Poliziak, Zuzenbide Estatuaren logikatik legezkoak direnak

errespetatu beharko ditu (Bilboko HBren manifestazioa, esaterako) eta legez kanpokoak erreprimitu (*koktel* bat botatzea, adibidez). Beste gauza bat da errepresio horrek zerbait konponduko duen ala ez, baina hor logika bat dago. Manifestazioak, ertzainez edo polizia nazionalaz inguratzea, oster, logika horretatik at dago. HBren Bilboko manifestazio jendetsuen azken hamar urteetako ibilaldia jarraituta, horietako % 95ean arazorik ez dela izan baieztatu liteke. Hauck jarraitu dituen edozein kazetarik ondo dakien moduen. Beste gauza bat da hauen ostean gertatutakoa, baina hori ezin zaie antolatzaleei egotzi.

NORMALA da Ajuria Eneko Itunaren alderdiek Ertzaintza oro har babestea, horren normala ez dena da haren jardura osoak, eta beti, babestea. Guztiok ikusi genuen ertzainen egoera larria zela, baina -zenbait egunkariren argazkiak oso argiak dira- jendea tirokatzeko modukoa?



Dena den, benetan larriena ibilbide osoan Ertzaintzaren presentzia zen. Aski da Zabalburuko komisaldegian egotea, eta hau ere ekin liteke HBk eta Barne Sailak berorren babesa negoziatuko balukete. Prebentzioa da edozein istilu eta gatazka konpontzeko modurik egokiena, eta Ertzaintzaren furgoneta bat manifestazioaren hasieran jartzeak agintaritza printzipioa adierazten du baina inteligentzia prebentiborik ez. Beste helburu batzuk lortu gura ez badira behintzat.

XABIER LETONA

ETA OTSAILAK HARRAPATU GAITU

ESPAINIAKO trantsizioan zintzilik gelditu zen gaietako bat, GRAPO, negoziatu eta isteko bidean omen dira asteotan. Trantsizioa denen ahotan, 97ko otsail beltza 81ekoarekin alderatu duenik izan da, orduko giroaz oroitu. Giro berezia bizi da gure herrietan. ETA bere ahalmenaren erakusketa egiten. HBko buruzagitza espetxean. Orain arteko kontsentsu antiterrorista besamotz geratu dela dioten agiri jelkidea. Presoen gaia kaleetan irakiten. Bi bahiketa paisaia integratuak. Sozialista batzuk Estatuto

'vasco-navarro' baten komenigarritasuna insinuatzen. Aspaldiko partez, ekonomia paralisi bidean ipintzen duten grebak. Beren buruak urkatzen dituzten preso eta preso-gaiak. Eta airera tiro eginda sabelean jotzen duten poliziak. Gerra zikin ttantta pare bat baino ez da falta, ultraeskuindarrak hasi dira-eta Madrilerako hurbildutako hernaniarrei ostiaka. Baina oraingoz trantsizio hori susmoa baino ezer gehiago ez da, asmoa gehienez. Eta aldaketak euskal presoen hurbilketaaren abiadura darama.

PELLO ZUBIRIA



Ekimena berreskuratu

UPN-PP eta PSN-PSOE euskal nazionalismoaren aurka jaurtikitzen ari diren mezu garratzen ondorioz eta Nafarroako politika bizitzen ari den egoera politiko berezia dela eta, Iruñeko abertzaleen artean ageri den kezka geroz eta nabariagoa da. UPN-PSN arteko akordioa onartua gelditu da -aurrekontuetatik haratago doana eta koaliziozko gobernu mozorrotua erakusten duena-. Bestetik, ENAMek sinesgarritasuna galtzen du bere ekintza politikoa biolentzian oinarritzen duelako. Honen aurrean, Eusko Alkartasuna, ez hainbeste alderdi bezala, baizik eta ordezkatzeko duenagatik, Nafarroa desberdin baterantz abiatzen den bi-

BEGOÑA ERRAZTIREN TARTEA

ZER EGIN BEHAR DUTE ABERTZALEEK NAFARROAN?

partidismoarekiko posible den 'mehatxu' bakarra bihurtu da.

Honela bada, UPN-PP bikotea eta PSN-PSOEko Batzordearen lehenengo lana, aurreko hiruko gobernuak egindako lanak bertan bera uztea izan da. Orain, aldiz, beren indarrak euskaldunon aurkako frontea eraikitzen jarri dituzte, helburu bakarra euskal nazionalismoaren deslejitmatzea izanik.

Aurreko hiruko gobernuak sor zitzakeen kritika lejitimoetatik at, akordio honek, integrazio eta progreso gehiengoa ekarri zuen, zeinak lehenengo egunetik UPN-PP eta eskuin ekonomikoa -Nafarroako historia hurbilean lehenbiziz botere politikotik at geratzen dena- aurrez aurre izan zituen.

UPN-PP eta PSN-PSOEren jarrerak euskal nazionalismoa kinka larriera eraman dute Nafarroan eta botereak, bere komunikabideak medio, hark esparru politiko gisa duen legimitatea etengabe zalantzan jar-

tzen du.

Gainera, HBk bultzatzen duen kale biolentziak jarrera horrekiko errefuxapen gogorra dakar, baina baita defendatzen omen duen sustrai ideologikoaren aurka ere.

Gure inguruneke heste zenbait agerpen sozialek itxura ona badute ere -euskarako eskolaratzeen gorakada eta ELA Nafarroako bigarren indar sindikala bihurtzearena datozkit burura- abertzaletasunak ez du legokiokkeen ordezkapena, funtsean desmobilizatua dagoelako.

Deskribatutako egoeraren aurrean, ez nuke diagnostiko hau bukatu nahi Nafarroako alderdi eta sektore abertzale eta aurrerakoi guztiei deialdi bat luzatu gabe: kezka politikoa berreskura dezatela, eta inplikazio sozialerako eta lan teorikorako ahalegina egin. Euskal nazionalismori Nafarroan dagokion ekimena berreskuratzea eta erresistentzia jarrera batean ez gorde-tzea oso garrantzitsua deritzot.

Iñaki Anasagasti Madrilgo Kongresuan EAJren bozeramalea denak esandakoaren arabera, «HBko Mahai Nazional guztiaren espetxeratzea eta presoekiko eramaten den politika erabat geldiarekin, sutara egur gebiako botatzen da».

Juan Mari Atutxa Barne kontseilariak bere aldetik, «GRAPO erakunde terroristarekin erabili den formula erabili daiteke ETA-rekin ere, baina horretarako, behin-behinekoz behintzat, ETak biltzeari utzi beharko lioke».


Ajuria Eneko Mahaikideek Bilboko istiluengatik Ertzaintzari emandako apoio erabatekoan zirikitu txiki bat zabaldu zuen **Jose Navas** IUko Bizkaiko diputatuak, «Polizia nahikorik ez egotearen ondorioa izan zen ertzainen neurritz kanpoko jardura, dena den akatsa ez da ertzainena hauen agintarien profesionaltasun eza-rena baizik».

Alain Lamassure Frantziako ministro bozeramalea ere kezkatuta agertu zen Iparraldean gazteen artean ikusten dituen zenbait jarrerari buruz, «Gazte mugimendu batzuen erradikalizazioaz

ohartzen ari naiz. Horrek arduratzen nau, eta zibur nago, gazte hauek pazientziarik gabe eta desesperaturik badaude langabeziagatik eta gizar-tean leku eta enplegu bat topatzeko duten arazoagatik da».

Euskal Herriko gatazka giroa, dena den, urrutiegi doa batzuentzat, tartean


Espainiako COPE irrati kateko **Antonio Herrero**rentzat, «HBko Mahai Nazionalen kideen espetxeratzea eta kamiozaleen grebaren hasiera noiz hasi ziren kontuan hartuz, badaude zenbait seinale esateko HBk greba horretan zerikusi argia izan duela, guztia estatua desorekatzeko».



Joseba Permach, Herri Batasunako zinegotzia Donostian

«Segurtasunagatik Mahaiaren talde ordezkaria ez da publiko egin»

Zinegotzia izateaz gain, Jone Goirizelaiarekin batera HBren Mahai Nazionalaren lana beteko duen taldearen aurpegi publikoa da. Ardura handia 27 urteko gazte batentzat. Serioa ei da, eta serio hartu gaitu.



Norbait espetxeratuko zutela imagina zenezaketan, baina espero al zenuen Mahai Nazional guztia espetxeratzea, edo ezustekoa izan da?

Oso garbi genuen hau gerta zitekeela, eta hau gertatu ahala hartu beharreko neurriak ere prest zeuden aurretik. Azken hilabetetan estatuak hartutako neurrien artean kokatzen zen, sakabana-ketari custea, gazteen atxiloketa masiboak... eta, estatuaren logikatik ikusita,

hau gertatzea logikoa zen. **Buruzagitza gabe geratu al da HB?**

Buruzagitza espetxera doa baina gure jarduera politikoak bere ildotik jarraitu behar du eta horretarako behin-behineko batzordea martxan jarri da. Oraindik Mahai Nazionalaren maila lortuko ez badugu ere, egoerari aurre egiteko gai

izango gara.

Batzorde horretan zergatik zarete publikoak bi pertsona bakarrik?

Segurtasun neurriengatik. Aurrerantzean ere estatuak Ezker Abertzalearen aurka bere erasoekin jarraituko du eta ez dut uste HBkook eraso horretatik libre gertuko garenik. Bigarrenik, mundu honetan dagoen

morbozale eta *karronero* guztiei inongo bazkarik ez emateko.

Aurreko zuzendaritzari gertatutakoa ikusita, orain bi izen publiko bakarrik geratzeak eta zu horietako bat izateak ematen al du beldurrik?

Guk ez dugu atzerapausorik emango, eta Alternatiba Demokratikoa gizarteratzen

■ «Landa, Iturralde eta Alvarez oraingoz ez dira epailearen aurrean aurkeztuko». (Arg.: A. Eloseggi).

jarraituko dugu, horrek gure jardueraren ez dakit zer atalagatik barrura joan behar dugula ekartzen badigu, bada onartzen dugu eta kito. Zoritxarrez, urte askotarako sufrimendu ugari daukagulakoan nago eta guk ere pairatu beharra izango dugu.

Kodiko Penal berrian apologia delitua oso zabal interpreta omen daiteke, zer dio zuen aholkularitza juridikoak gerta litekeenari buruz?


Antza juridikoki ezin dute gauza handirik egin Mahaiaren aurka, baina gure aholkularitza juridikoak zera dio, hemen juristek zer pentsatzen duten ezer gutxirako balio duela, hemen parametro politikoan neurtu behar direla gauzak. Ez da kasualitatea, epaileak, Madrilen atentatu bat egon ondoren eta HBren aurkako giro gogorraren erdian, Mahaiari deitzea.

Karmelo Landa, Mati Iturralde eta Joseba Alvarez aurkeztuko al dira epailearen aurrean?

Ez dut uste oraingoz Bruselatik etorriko direnik. Beren lana Europan zehar, eta batez ere Belgikan, kartzelaratzeen bozgailu izan eta Alternatiba Demokratikoa azaltzea baita.

Zer deritzozu atxiloketa hauek gizartearen izan duten oibartzunaz?

Hasieran handia izan zen baina gero komunikabide gehientsuenek izkutatu nahi izan dituzte. Funtsean, islatu nahi da atxiloketa arruntan aurreran gaudela, beste ba-



«Kale borroka ez da Oldartzenen ondorioa gazteen konpromezu maila handitzearena baizik (Arg.: A. Elozegi).

tzuk gehiago direla eta kito. Ez da islatzen ari, terrorismo apologia medio, indar politiko baten zuzendaritza osoa kartzelara doala.

Eta klase politikoari dagokionez?

Lotsagarria da klase politikoa erakusten ari den maila. EAJ, EA eta Ezker Batuaren aldetik ez dirudi atxiloketok begi onez ikusten dituztenik, curen hitzetan behintzat; begi onez ikusten ez dituzten beste gertakizun batzuen aurrean erakusten duten jardura eta kasu honetan erakutsi dutena, dena

den, erabat desproporzionala da. Hitz xumeetan geratu da guztia, eta hitzok lehenbiziko atxiloketen uncan bakarrik izan ziren.

Txarrenera, espetxeratzeko hauek Alternatiba Demokratikoa zabaltzen lagunduko dizute.

Espetxeratze hauek ez bereziki, Euskal Herrian azken boladan etengabe gertatzen ari diren gertakizunek gizarteratzen dute Alternatiba Demokratikoa. Azkenokaz, adibidez, euskal gizarteak euskal presoak Euskal Herriaritzea eskatu du, hemen demokraziarik balego, presoak hemen egon beharko lukete. Beste hainbat adibidetan berdin gertatzen da, eta kasu honetan zuzendaritza politiko osoa espetxera-

HAMARREKOA

JESUS EGIUREN

«Galazka ulertu du, baina ez du ausardiarik»

JON SALABERRIA

«Bera, gaur eguneko eta etorkizunean izango dugun euskal gazteraren ispilua da»

ODON ELORZA

«Donostiako alkatea azkarra bai, baina bi aurpegi erakusten dituen horietakoa da»

RAMON ETXEZARRETAI

«Bere burua lanoen gainetik jartzen duen euskal idazle espainol harroa»

ASIER ATUTXA

«Aitaren semea dela esango nuke»

CRISTINA CUESTA

«Bakezalez mozorroturiko gerrazalea»

JOSEBA ALVAREZ

«Euskaltzale bezain jole amorratua da eta lagun handia»

BEGOÑA GARMENDIA

«Boserrian bizi den hiriko biztanlea da eta laguna ere bai»


EUGENIO AZPIROZ

«Galazkarik bizi diren intoleranteen ordezkaria»

KORO GARMENDIA

«Josu Muguruza erail zutenean 'Quien a hierro mata a hierro muere' esan zuena»

«Zoritxarrez, urte askotarako sufrimendu ugari daukagulakoan nago eta guk ere pairatu beharra izango dugu»



«Atutxak gure errepresioa PPrekin diseinatzan duen bitartean ez dut kontraesanik ikusten EAjri egindako crasoetan». (Arg.: A. Elozegi).

tzeak ere, hemen demokraziarik ez dagoela erakusten du. Euskal herritarrok ezin dugu gure etorkizuna erabaki, eta hori galerazten duten trabak apurtu behar dira, hots, herri honi herri gisa dagozkion eskubideak onartu behar dizkiote.

Espetxeratze iloginaren erdian Eugenio Aranbururen heriotza, HBk bere azken urteotako garairik gogorrenetakoa bizi bide du.

Une gogorrak bizi ditugu, baina logikoa zen pentsatzea Estatuak Oldartzenetik ateratako ildo politikoari aurre egin behar ziola eta horrek bere ondorioak izango zituela. Hemen, hainbat urtetako isolamendua apurtu eta erasora pasatzea erabaki zuena Ezker

Abertzalea eta Herri Batasuna izan ziren. Beraz, hor kokatu behar dira jasaten dugun errepresioa eta gertakizun gogor horiek.

Pertsonalki nola bizi izaten ari zara egoera espetxeratuen inguruan?

Bi gauza azpimarratuko nitzuke. Bere alde tristem eta gogorra dago, ikustea nola pertsona hauek familia eta lagunak uzten dituzten, nola egiten dituzten azken afa-riak beraiekin eta abar. Baina bestetik, pozgarria da ikustea 24 pertsona hauek benetako konpromezua eta kartzelara zein konbentzi-

turik doazen, hain zuzen ere bake proposamen bat gizar-teratzeagatik doazelako.

Oldartzenen ondoren sabotaien borroka biziki areagotu da. Azken boladan atxiloteta ugari izaten ari da; bere topea aurki dezake borroka mola horrek lasterrean?

Zehaztasun gisa, kale borroka ez dela Oldartzenen ondorioz esango nuke. Beti egon izan da kale borroka eta gatazkak irauten duen bitartean ere egon egongo da. Dena den, azken urteetan kale borroka moduan ezagututako borroka hori

ugaldu egin da, baina gazeriaren konpromezu maila handitu egin delako, eta konpromezu mailaren arabera dagoenez, ez dut uste errepresioaren bideak borroka mota horrekin amaituko duenik. Askotan entzun ditugu ETAri buruzko 'azken uneak' iragartzen baina ETAk hor jarraitzen du, eta kale borrokarekin berdintsu gertatuko dela-koan nago.

Ezker Abertzalean ere kontraesanak sortzen bide ditu, batez ere azken boladako zaurituengatik, Erreterian, Azpeitin...

Egia da errugabe batzuk sufritu dituztela craso batzuen ondorioak, baina nik argi dut horiek ez zirela eraso-oen helburu. Beraz, egin

«Hemen juristek zer pentsatzen duten ezer gutxirako balio du, hemen benetan balio dutenak parametro politikoak dira»

☞ **Atxiloketen aurrean klase politikoa erakusten ari den jarrera lotsagarria da; EA, EAJ eta IU-EBk hasieran zerbait esan zuten eta kito**

dituztenak ere ez zirela oso gustora geratuko pentsatzen dut.

Eraso horietan, besteak beste, EA eta EAJren egoitzak ikutzen dira, baina gero -presoen kasuan, adibidez- elkarlanean ari zarete zenbait lekutan, ez al dago kontraesanik?

Beste galdera bat eginez emango nioke buelta galderari. Ez al dago kontraesanik, Presoen Batzordea biltzen ari den bitartean, Ertzaintzak kanpoan dauden senideak jipoitzean? Hemen presoen inguruan hitzetan bakarrik jarri ginen ados, denborak erakutsiko du EAJren jarrera ez zela egiazkoa. Orduan, egoera horrelakoa den bitartean, zoritxarrez, era honetako erasoek jarraituko dutelakoan nago.

Nik azaldutako kontraesanari beste batekin erantzun diozu, baina lehenengo kontraesana hor dago.

Azkenean ez dut uste kontraesanik dagonik, azken finen EAJren jarduera politikoa Ezker Abertzalearen aurkako jarduera politikoa delako. Atutxak gure errepresioa PPrekin diseinatzen duen bitartean ez dut uste era horretako erasoetan kontraesanik dagoenik.

HBk ikusten al du beldu-leku positiborik EAJko

T A N T O A

Zinegotzi euskalduna eta donostiarra

EZAGUTU, Parte Zaharrean ezagutu nuen gazte denboran, duela 11 urte, leku berdinetan ibiltzen ginen eta. Garai haietan banituen bi erreferentzia: Arrano Beltzako kidea zela eta Anoetan atletismoa egiten zuela. Dena den, lana tartean, duela laupabost urte pertsonalki gehiago ezagutzeko aukera izan nuen, Donostiako udal informazioa egiten hasi nintzenean hain zuten ere. Berari buruz zer esango dizuet ba, kazetari bezala, gaiak ateratzen dituenetakoa dela, gainera edozein komunikabidetako kazetariri. Dena den, primizia gutxi eskaintzen du.

Egunero udaletxean egiten du lan; udal batzorderik ez badu, prentsa oharrak prestatzen ditu. Kazetariekin duen harremana ona da, pertsona irekia eta oso eskuragarria baita, zinegotzia eta HBko udal taldeko

bozeramailea izan arren. Udalgintzan hasi zenean nahiko ixila zen, nahiz eta orain gezurra dirudien. Hasieran Haziendako gaiak lantzen zituen, ez da ahaztu behar ekonomilaria dela eta zenbakiak interpretatzeko gaitasuna duela. Pixkanaka, ordea, hauek dira gutxien ikutzen dituenak. Denbora hartu beharko du aurtengo udal aurrekontuaz hitz egiteko.

Tartean korrika egiteko denbora bilatzen du, egunaren arabera goiz edo iluntzean izaten da ordua, eta Behobia-Donostian parte hartzen saiatzen da urtero. Kirolaria izateaz gain, Udal Patronatuko HBren ordezkaria zen zinegotzia izendatu baino urte batzuk lehenago.

Dena den, ez da zinegotzi arrunt bat, donostiarra eta euskalduna da oso. Agian, Udaletxean dagoenez gero, erdara gehiago erabiltzen du, kazeta-



**Olatz Soto
Kazetaria**

riekin komunikatzeko hizkuntza ofiziala erdara baita etxe horretan. Informazioa eta oharak euskaraz ematen baldin baditu ia ez du eraginik komunikabideetan. Taldekideekin batera, udalbatzan bera da euskaraz erabiltzen duenatariko bat.

Kalean nahiko berdintsua da, jatorria, Parte Zaharazalea eta danborraria (edo Arrano Beltzako danborradan, kupeljo-lea?). Mendia ere ikaragarri gustatzen zaio eta hiru milatik gorakoak bat baino gehiago egin du dagoeneko, Herria Mendi Taldearekin batera.

EBBren azken agirian?

EAJk horrelakoak esatea positiboa da, baina HBren-tzat garrantzitsuenak agiri horren ondorioak dira, hots, hitzetatik ekintzetara pasatuko den ala ez. Dirudienek ez da horrela izango, adibidez Ertzaintzak ez duelako inongo aldaketarik erakusten eta bere buruak, Atutxak, agiriarekiko dituen desadostasunak agerian jarri dituelako.

Gobernuak Alternatiba Demokratikoaren zeri beldu beharko lioke elkarrizketa prozesu bat zabaldu ahal izateko?

Beharrezkoak diren kontaktuei ekiteko borondate politikoa besterik ez da behar. Bestetik, Madrileko Gobernuak autodetermina-

zioa eta lurralde batasuna onartuko balu ETak su-etena iragarriko luke. Azken finen, euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitze-ko eskubidea dugula esaten da eta hau onartuko balitz, benetako prozesu demokratiko batean sartuko ginateke.

Zer gertatzen da nafarrek Euskal Herri horretan egon nahi ez dutela esaten badute?

Euskal herritarrok argi dugu Hego Euskal Herria zer den. Alabaina, ETaren Alternatibo Demokratikoak dio prozesu demokratiko bat martxan jarri ahala hor eztaba-dutuko dela lurralde batasun hori nola gauzatzen den.

Errealista al da martxoaren 7ko greba oro-

korrerako deialdia?

Deialdi horren emaitza ez da zentzu koalitatiboan neurtu behar, koalitatiboan baizik. Agitazio eguna da eta mobilizazio egun garrantzitsua izatea lortze. badugu, Estatuak ikusiko luke Herri Batasunak eta, oro har, Ezker Abertzaleak badaukala Hegoalde osoan benetako erantzun indartsua emateko ahalmena.

Zer mezu luzatuko zenieki espetxean dauden HBko Mabaikideei?

Inongo dudarik ez dezatela eduki hemendik gutxira gure artean egongo direla eta, bitartean, egiteko utzi diguten lan hori aurrera eramango dugula.

XABIER LETONA

Langile korearrek hamarkada bat atzera kalean lortutako eskubideen defentsan dihardute

Hego Koreako langileek baldintzatu dute erreforma

Greba orokorrek eta langileen mugimenduek Hego Korea aztoratu izan dute azken boladan. Langileen oinarrizko eskubideetatik abiatuz, baina demokraziarako bidea jorratu asmoz ere, geroz eta gehiago dira mobilizazioetan parte hartzen ari diren langileak.

GATAZKAREN gogortasuna ez dator langile klase indartsuak gizartean duen eragi-

nagatik bakarrik; hau, azken 20 urteotan Asiako Herensugeetan ohizkoak diren

hazkunde tasa handien itzalean garatu da. Indar hau langileek duten indar moralak sendotu izpiritu erabakior eta grinatsuen ondorio ere bada. Gobernuak kendu gura dituen eskubide gehienak duela urte batzuk -Joku Olinpikoen aurretik eta ondoren- lortu ziren borroka luzearen ondoren.

Orain langileak lanpostuen defentsan ari dira.

Hauetako askok dioenez, 1992an Kim Yung-Sam-en alde bozkatu bazuten, demokrata zelako eta ustelkeria amaiaza zezakeelako izan zen eta ez langilegoaren eskubideen aldekoa zelako. Gaur egun, oster, auzitegiek Kim-en kolaboratzaileak ustelkeria dela eta zigortu ondoren eta alternatiba politikorik ez dagoela ikusirik, Koreako klase politikoak bere sinesgarritasun guztia galdu du. Lan kontraerreforma hau, iragan abenduko 26ko goizean Legebiltzarrean oposizioak proposatuta egindako bilkuran onartu zen. Egungo Legebiltzarra, ordea, 1996ko apirilean %50 baino gutxiagoko partaidetzarekin izandako hauteskundeetan hautatu zen. Bere lejitimitate eskasa, beraz, agerian dago.

Hego Koreako langileen iritzi politikoak aldaketa kualitatibo izugarria izan du. Datu esanguratsu bat: 1996ko hasieran egindako inkesta ofizial batek, %24k bere konfidantza langileen inguruko alderdi bati eskai-

Kapitalismotik at demokraziantz

KALERATZE librea, sol-daten jaitsiera, ordu gehiago lan egin beharrak eta lan segurtasun ezak eraman dute Hego Koreako langileria greba orokorrera James Petras pentsalari estatubatuararen aburuz. Langileen zapalkuntzak ekarri zuen Hego Koreako 'miraria' moduan ezagututakoak, Exportazioak %20an eta NPGa %5ean igotzea eragin zuen.

James Petrasen aburuz,

zoritzarrez, ekonomilari ezkertiar batzuek, ekialdeko kapitalismo sistema ontzat jo dute. Ekonomiaren igoera, langile eta boterearen artean hitzartuta eman dela diote. Ez dituzte, ordea, produkzioaren inguruan eman diren harreman sozialak aztertu.

Hego Korean, ohitura sindikala eta berauek, alderdi politikoetatik at geratzea azpimarratzen du James Petrasek. Gainera,

klase borroka demokraziarako bidea jorratzen duen esparru bat dela dio. Helburu nagusitzat, berrak sozialak, lan segurtasuna, soldata justuak eta langileen eskubideen onarpena dituzte. Helburu hauek lortzearen, langileek beste irtenbide batzuk proposatzen dituzte eta beren borrokarekin, gizarte demokratikoaren bidean langile borroka posiblea eta beharrezkoa dela adierazten dute.



Japonia cdo Asiako beste langileek ez bezala, langileria korearrak borroka sindikal aberatsa du bere historian.

niko ziola adierazten zuen.

Manufaktura eta nekazari langileak langile koalifikatu bihurtzeko egindako birmoldaketa azkarrak eta teknologia modernoak ezartzeak, 32 paralelotik behera ekonomia 'credugarria' antolatzen lagundu izan dute. Honak, kostu murriztetan balore handiko produktua sortzeko aukera eman du. Honela, gehienbat exportaziora zuzenduak dauden produktu lehiakorrek eskaintzen dira. Horrez gain, aduana mugasari irmoak ere badituzte.

Mirariaren bukaera

HAZKUNDE ikusgarri honek, kanpo eta barne eraginak jasan ditu bere garapenean. Kanpo eragina, EEB-Bak eta Japoniarekin izan duten harreman komertzialen jaitsieran oinarritzen da. Egun, esportazioak garapen bidean dauden herrialdeetara zuzentzen dituzte, honela, Hego Koreako enpresak multinazional handiekin lehiatzera iritsi dira. Munduko ekonomian egindako

lanak bultzatu du OCDEn (Ekonomi Lankidetza eta Garapenerako Erakundea) eta OMEn (Merkatuaren Mundu Erakundea) sartzerara Hego Korea. Testuinguru honetan ulertzen da erakundeek, Seuli barne merkatuaren hedapena eta aduana politikaren normalizazioa eskatzeko.

Langile korearrak, Japoniakoak ez bezala, ohitura sindikala eta politikoa oso garatua dute. Egun legez onartua dagoen sindikatu bakarra, Koreako Sindikatu Federatua (FKTU) da. 1,2 milioi afiliatu ditu eta gobernu kontserbadoreekiko begirunez jokatu ohi du, nahiz eta oraingoan Koreako Sindikatuen Kontseiluaren (600.000 afiliatu baina legez onartu gabekoa) bultzada medio, ezkerreara egin duen.

Honela bada, 'ekialdeko mirariak' bi oztupo nagusi ditu: nazioarteko legeek inposatutako testuingurua eta langileen jarrera.

PAU PONS

ARGIA-El Temps

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Herrien defentsan

TXINAKO Xinjiang probintzian gutxiengo uigur-en aurka Pekingo agintariak aurrera eramanez errepresio kanpaina gogorak agerian utzi du berriro ere Txinaren eta beste nazio indartsuen politika, estatu bakoitzean kultura hegemonikoa ezartzearena. Thundaka independentista uigur exekutatu dituzte militar txinatarrek Yiningen (Kuldja uigurreraz), hiri horretan izan diren istiluen ondorengo errepresio bortitzean. Iazko apirilean ekin zion Pekinek errepresio eta jazarpen kanpaina handiari. Txinan zehar delikuentziaren aurkako kanpaina zena, Tibetean, baina bereziki Xinjiang-Uigur Eskualde Autonomoan (Ekialdeko Turestan independentista uigurrentzat), militante nazionalisten aurkako jazarpen bortitza izan da. 150 uigur inguru exekutatu dituzte orduz geroztik, azken egunetakoz gain, eta milaka atxilotu dituzte.

HERRI oso bat kriminalizatzeko politika erabili dute agintari txinatarrek uigurren aurka. Nolabait esateko, Kremlinek Txetxeniako independentistekin egin zuen moduan, uigurrak narkotrafikatzailetzat eta mafiosotzat ditu Pekinek. Bertsio ofizialaren arabera, talde erasotzaile txiki batzuk botere politiko popularraren aurka altxatu ziren aberria zatitzeko xedearekin eta lapurretan eta erasoka hasi ziren. Bestelako bertsioa da independentistena.



KOLDO ALDABE

Kazetaria

ZAZPI milioi uigur inguru bizi dira Ekialdeko Turkestanen. beste milioierdi inguru dira Mendebaldeko Turkestanen (Kazakhstan) bizi direnak, baina Sobiet Batasuneko beste errepublika ohi batzuetan eta Afganistanen eta Pakistanen ere badira. Turkian dialektiko batez mintzatzen dira, uigurrera, eta erlijioz musulmanak dira. 744. urtean lehen aldiz estatu bat osatu zuten, baina independente izan ziren baita ere 1933an eta 1944tik 1949ra. Sobiet Batasunak hautsi zituen uigurren errepublikak eta 1949an komunistek Pekinen boterea eskuratu zutenean Txinaren menpe erori ziren berriro.

Pekinek asimilazio prozesua areagotu duen unean, nazionalismoa igo da berriro uigurren artean. Baina herensugearen atzaparretan hilko dira nazioartean oihartzunik ez badute.

Corcuera ministro ohia giltzarria izan zen siderurgia eta untzigintzaren birmoldaketetan

Pribatizazioen pastela banku eta multinazionalen ahotara

B ankuek eta multinazionalak jasoko dituzte pribatizazioaren gozokirik onenak. Estatuaren estrategia enpresak saneatzea eta gero saltzea izan da, eta hori guztia EAJ eta CiUren laguntzaz.

JOSE MARIA AZNAR buru duen PPren Gobernuak enpresa publiko errentagarri gehienak pribatizatu egingo ditu, 1997 honetan bere politika neoliberalari ekinez. Enpresa horietako asko saneatu egingo dituzte, lehenik, horretarako diru publikoa erabiliz, eta ondoren saldu. Erosleak, bankuak eta, zenbait kasutan, multinazionalak izango dira. Hain



BBV izango da PPK bultzatutako pribatizazio prozesu honetatik etekin oparoa aterako duenetakoa.

zuzen ere, lehenagoko urteetan Euskal Herrian bereziki kokatutako sektoreak,

krisiak jota zeudenak, bazterrean utzi zituzten berauen esku geratuko da sektore

estrategikoen kontrola. Banka eta multinazionalak bezalako 'marrazoak' pastelaren zati handienak noiz hartuko daude.

PPren Gobernuak bi laguntzaile nagusi ditu pribatizazio-prozesu honetan, CiU talde kataluniarra, Kataluniako enpresariak eta klase liberala oinarri dituela, batetik, eta EAJ bestetik, ekonomia arloan Aznarren antzerako politika eginez. Pribatizazio prozesuarekin galera edo defizit publikoa arintzea dute helburu. Pribatizaziorako irrikari lehenengo asealdia otsailean emango zaio, Telefonikaren pribatizazioarekin. Jarraian etorriko dira Repsol eta Endesa. Atzeraxeagotik, berriz, Tabacalera, Argentaria, Babcock Wilcox (BW), Siderurgia Koorporazio Integrala (CSI) —Bizkaiko Labe Garaien hondakinen gainean eraikia—, Inespal, Astilleros Españoles (AESAs) eta Petronor.

PPren Gobernuak burubelarri ekingo dion pribatizazio-politika honi etekin

handiena aterako diotenak bankuak izango dira. Beraiek eskuratuko dituzte pastelaren zatirik handienak, une honetan etorkizun handiena duten sektore estrategikoak, hots, energetikoa eta telekomunikazioak.


Areago, oraindik; dagoneko, pribatizazioari ekin aurretik, bi banka-talde indartsu dira enpresa handi horietako akziodun nagusienak. Batzuk aipatzeko, hortxe daude Telefonika, Iberdrola, Repsol, Petronor, BBV eta La Caixa alde batetik, eta Banco Santander eta Banco Central Hispano, bestetik, dira sektore horietan akzio paketa ederrak dituztenak. Eta horiek izanen dira, pribatizazioari atea irekitzen zaionean, kontrol handiagoaren bila joango direnak.

Era honetara, bada, Espainiako sektore industrial eta finantzariak bi talde nagusiren inguruan bilduko dira. Eta bi talde hauek presentzia eta eragin itzela izango dute gizarteko beste hainbat sektoretan ere, komunikabideak bezalako sektore bizietan alegia. Eragin hau, jakina, garrantzizkoa izango da baita gure gizartearen egituratzeko ideologiko eta kulturalen ere.

AHV eta BW

BAINA pastelaren zain dauden bakarrak ez dira bankuak. Multinazionalak ere hortxe daude eta gertutik jarraitzen ari dira pribatizazioaren gaia eta beraiek ere puskaren bat espero dute. Nolanahi ere, ez dirudi bankuak adinako zatirik eskuratuko dutenik.

Hego Euskal Herrian kokatuta dauden estatuko hainbat enpresa diru publikoarekin saneatu dituzte,



■ Sozialistek, AHVko milaka langileri aurrejubilazioa 52 urterekin emanda saneatu zuten enpresa.

ondoren erostun onenari saltzeko. Aipagarrienak bi dira, BW batetik, eta CSI eta ACB (Bizkaiko Altzairutegi Trinkoa) bestetik, azken hauek AHV (Bizkaiko Labe Garaien) bilakaera. Bi enpresa hauek diru publikoz saneatzearen aferra aspalditik dator. Duela 15 urte ekin zion —Espainian aitzindari izan zen— aurrejubilazioen planari, 52 urterekin langileak jubilatu. Saneamendurako bideetariko bat izan zen langile kopurua gutxitzea. Eta Estatua izan da —hau da, zerga ordaintzaileok— milioikako gastu hauei aurre egin diona.

Gastu hauei guztiei erantsi behar zaie, gainera, instalazioak hobetzeko inbertsioetan eta ondare edo patrimonio-egoerak orekatzen —azken urteetako galera izugarriek behega jota utzi baitzituzten— gastatu diren milaka milioiak. Denak diru publikoaren poltsatik atera dira. Aurrejubilazio pribile-

giatu hauetan itxura gabe gastatu da dirua, milaka milioi. Izan ere, langilea 52 urterekin etxeratzen zen, 60-65 urte arte lan egin ariko balitz bezalakoxe soldata kobratuz, eta behin adin horretatik aurrera, jubilatu egin zen ordurarte lanean jardun izan balu bezala. BW enpresak langile kopurua gutxitzeko egitasmo hau martxan jarri zuenean 10.000 lagun zituen plantilan. Gaur egun, berriz, 1.550 lagun ditu. Eta orain, pribatizazioaren bideari heldu dagoenean, hasia du beste aurrejubilazio pribilegiatu plan bat. Plan honen bidez 550 lagun kanporatuko ditu eta, beraz, 1.000 langile ingururekin geratuko da.

Azken egokitzapen hauek bakarrik 10.000 milioi pe-

zetako (400 bat milioi libera) kostua izango du, berriro ere diru publikoarekin ordainduko dena. Diru kopuru honen gain, beste 5.000 milioi pezeta sartuko dira enpresan 1996ko galerak eragindako ondare desorekari aurre egiteko. Kalkulagailua hartzea nahikoa da jakiteko zenbateko dirutza ahitu den BWk azken 15 urteotan egin duen egokitzapena aurrera eramaten, plantilaren murrizketan, batetik, eta ondare orekatzen, bestetik.

Enpresa salgai jarri aurretik 'erakargarria' egiteko modua izan da hau, eta multinazional bat izango da, ziurrenik, enpresa honen kontrolaz jabetuko dena. Lehenik diru publikoa erabili osatzeko, eta behin osatuta dagoenean, enpresa

■ **Pribatizazio prozesu honetan ateratako sosekin, Aznarren gobernuak defizit publikoa arindu nahi du**

Siderurgiaren eta untzigintzaren birmoldaketetan egindako lanagatik, Corcuera Barne Ministerioa eman zioten

pribatuari zerbitu. Hauxe da PP bideratzen ari den politika eta Hego Euskal Herrian EAJ eta honen Gobernu du sozio.

Corcuera giltzarra

GAUZA bera gertatu da Bizkaiko Labe Garaiekin (AHV). Euskal siderurgiak bere garai onetan banku pribatuen babesu zuen baina sasoi txarragoak heldu zirelarik bazterrean utzi zuen. Egoera hartan Estatutak hartu behar izan zuen esku enpresan eta diru publikoarentzat zama handia zan da geroztik.

Aspaldiko urteetan Estatua izan da AHVren babesu. Diskriminazio politikoen pairatzaile, bere instalazioak berritzen 90.000 milioi pezeta inbertsioa egin zuen eta handik denbora gutxira bertan behera utzi zuten, hain zuzen ere, Europar siderurgia hau desagertarazteko erabakia hartu baino lu urte lehenago.

Bien bitartean 14.000 langileko plantila murrizten joan zen azken urteetan. Murrizketa aurrejubilatuz garestien bidez egin zen, 52 urterekin, eta diru publikoak egin zion aurre gastu honi. Adibide asko jar litezke baina argiago ikus dezagun, hel diezaogun hurbileko adibide bati, AHV 6.063 langile zituen 1993an eta gaur egun, 1997an, Bizkaiko Altzairutegi Trunkoak (desagertutako AHVren gainean eraikia eta aurtengo urtarrian ofizialki inauguratu dena) 300 laguneko plantila du! Gainerakoak, 52

urtez geroztik erretiraturata daude, eta 60-65 urtera iritsitakoan jubilatuko dira.

Zenbat milaka milioi kostatu da afera hau? Honetaz informazio ugari izango duena Jose Luis Corcuera ministro ohia da. AHVko langilea zen, elektrizista, eta PSOEren buruzagitzako partaide Madrilgo Barne Ministerioaz arduratu zenean. Corcuera giltzarria izan zen estatuko eta Euskal Herriko siderurgiaren birmoldaketarako negoziozko-prozesuan, eta bera izan zen Euskalduna enpresa itxeko prozesua ere bideratu zuena. Ministerioaren ardura PSOEren oparia izan zen, bere unean hain mobilizazio eta gatazka gutxiarekin eramandako birmoldaketa-prozesuan «eraginkortasuna, tinkotasuna eta indarra» erakustegatik.

Corcuera ministro izan zen baina AHVko lana utzi gabe, eszedentzia egoeran egon baitzen. Horregatik, Corcuera ere birmoldaketa pribilegiatu horren onuraduna da. Orain, bada, CSI eta ACB pribatizatzeke egoera oncan dago Estatua, erostun onenari eskaintzeko, alegia. Horixe da Madrilgo pribatizazio-politika, EAJ eta CiUren babesarekin.

Dirudienez ez zaie asko axola BW eta AHVren kasuak soilik hartuta, azken 15 urteotan gastatu duten bilioia eta bankuak nahiz multinazionalei saltzeko gertu daude, ondare publiko industrial eta estrategikoa xahutuz.

DANIEL UDALAITZ

DIRUAREN HOTSA

Telebista digitalaren sekretu batzuk



ZKEN bi hilabeteotan, telebistek informazio jario handi batean murgildu gaituzte telebista digitala dela eta ez dela, eta oraindik ez daukagu oso argi zer den hori. Ez informazio jariora ez telebista modu berri hori ez ditugu oso ondo ulertzen, baina gauza bat argi daukagu: ordaindu egin beharko da.

Orain dela urte bat, gure ezjakintasun berdintsua zen telefonoaren inguruan: analogikoa edo digitala. Azkenean, telefono digitalak irabazi duela begibistakoa da, telebistarekin ere honelako zerbitu gertatuko da.


IZAN ere, barruan, denok daukagun telebista programadoreari bizia emateko aukera eskainiko omen digu aukera berri honek: eguneko zine estreinua guri komeni zaigun orduan ikusteko aukera eskainiko digu; Erreala eta Athletic-ak aurrez aurre jokatu behar dutenean, botoi bati sakatu eta lagun talde bat elkartzeko aukera paregabea eskainiko digu (hori bai, ordainduta).

Eta futbola aipatu duguncz, honen inguruan sortu den eztabaida aipatu behar, telebista digitalaren inguruan sortu den polemika, futbolaren inguruan izan baita. Gobernuak igorri berri duen lege dekretuak babesten duen telebistaz eskaintako futbola ondasun preziatuenaren moduan.

Etorkizunean, badirudi kanal tematikoak funtsezkoak izango direla. Horien artean futbola izango da izarra. Datu bat: Urtebete (1996) Espainian prentsaren eguneroko ale salmenta jaitsi denean, egunkari batek igo egin zuen, bere eguneroko salmenta 500.000 alectara iritsiz. Ba al dakizue zein den? «Marca».

GOBERNU arauen erabakiaren ondoren, hiritarren informazioa jasotzeko eskubidea bermatu nahi dela esaten da. Baina ze informazio? Ordaineko telebistak dituzten informazio zerbitzuak kodifikatu gabe igortzen dira. Inork ez luke ordainduko bere 'teleberri' edo 'telediarioak' ikustegatik.

Eskaintzaren aniztasuna eta lehiakortasuna bermatu nahi dela esaten da. Hau, telebista digitalean murgilduta dauden gizarteetan gertatu den bezala, ezkututzen den eufemismo bat da: merkatu bakarra dago eta egile bakarrarentzako dago negozioa. Hemen, interesatu guztiak, marketinean ezinbestekoa den printzipio bat egin dute bere: lehenengo izatea, hoberena izatea baino garrantzitsuagoa da.




XABIER ZABALETA

Irudi aholkularia

Francesc Cabanes pilotari valentziarrak euskal pilotariekin jokatu izan du maiz

GENOVES, VALENTZIAKO PILOTAREN MAISU ETA IKUR

Hemezortzi urte zituela egin zen profesional eta hilabetetara Valentziako jokalaria onena zen. Txapelketa Berezia zazpi aldiz bereganatu zuen 1975etik aurrera. Banakako trofeo guztiak irabazi zituen, 1992ra arte. Genoves herri-sinboloa da Valentzian.



1995ean, txapela irabazi ondoren, erretiratu egingo zela plazaratu zuen Genovesek.

ABENDUAN egin zituen 42 urte, eta bi hamarkadatan punta-puntan egon ondoren, bere kirol bilakara hasi da apur bat beherantz egiten. Bere jatorrizko izena Francesc Cabanes Pastor da, baina Valentzian denek bere herriaren izen berarekin deitzen diote: el Genovés.

El Genovés bizimodu la-

saiko herri txikia da, Albaida erreka ondoan dagoena, Costera eskualdean. Eskualde horretako hiriburua ondoan du, Xátiva hiri aberatsa, Borjatarren tribu miragarriaren jaioleku, baita Josep Ribera margolaria eta Raimon kantariarena ere. Genovés, ordea, iragan

esangarririk eta adierazgarritasun sinboliko berezirik gabeko herria da.

Inork ez luke pentsatuko bertako herritar xumeenetako bati esker herriak horrelako ospea hartuko zukeenik eta, gainera, hau mugaz haraindi ere joango zenik. Paco Cabanes, valen-

tziarren kirol berezkoenaren historian pilotari enblematikoenak, bere herriaren izena kanpoan paseatu du.

1973an egin zuen Valentziako pilota profesionalean debuta. Jokorako gunean duen nagusitasunak —kaleko jokuan, trinketeetan edota frontoietan—, baina

Valentziako pilotaren modalitateak

Valentziako pilota modalitate zaharrena *llargues* deiturikoa da (luzeran). Joko zuzena da, aurpegiz aurpegikoa izateagatik bereizten da. Eskularruekin babesten da eskua eta erabiltzen den pilota behilarruarekin eskuz egindakoa da, oso azkarra eta 40 gramokoa. Hegoaldeko eskualdean jokatzen da oraindik modalitate hau eta 40 klub baino gehiagok parte hartzen dute txapelketan. Kalean jokatzen da, herri askotan oraindik *carrer del trinquet* izeneko kalerik bada (trinketearen kalea).

Gaur egun Valentziako trinketeen (frontoi bikoitz baten antzekoa da, lauki zuzen bat osatzen du, jokoa luzean nahiz errebotean jokatzen dela) *escala i corda*

jokatzen da (eskailera eta soka —eskailera horra betan ikuslegoa eseritzen den hiru eskailera itsatsita daudelako, eta soka kantxa bi zatitan banatzen duen sare bat dagoelako).

Hau da modalitate nagusia, ikusgarria eta Valentziako pilotako mitoak eragin dituna: Genovesek gain, Eusebio, Rovellet, Juliet... Pilotaren gertakari handiak modalitate honen inguruan ari dira egituratzen: ligak, banakako txapelketa, azokak...

Raspall modalitatea ere ez da ahaztu behar, sarerik gabe jokatzen bada ere, meritu eta edertasun handiko jokoa da, herrikoia da eta ez *escala i corda* bezain unibertsala.

Trinketeen duen nagusitasunak eta bere hurbiltasun humanoak pertsona onartuenetarikoa egin dute

moduan bere lana maitatuz, Genoves, egun ere, gorai-pamen eta laudorio handienak sortzeko gai da. Ikusleek, beti bezala, nahi dutenaregatik egiten dute apustu. Baina ikusle hauek beraien txalotzen dute, aho batez eta emozioari ezin cuntsiz, Genovesek edozein eskuz kolpe errepikaezin bat marrazten duenean.

Egia esan, bera ez da pilota valentziarraren lehen eskua. Baina bere eskuz irabazi du honen erreferentzia

baita bere hurbiltasun humanoak ere, pertsonai publiko onartuenetarikoa bilakatu dute Valentzian. Bere izena, El Genoves, herriatzen duen erreferentzia da

jada. Valentziako pilota eta Genoves dira, ziur, valentziarren sinbolo kolektibo batu eta indartsuak, behintzat gune herrikoietan valentziera-hiztunetan.

Kirol mailatik kanpo duen garrantziaz jabetu gabe ere, gaudiezineko txapeldun bitzita Valentziako joko tradizional eta antzinakoena gozatzen egin du. Artisau baten

AIZU!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tnoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....


Bankua.....

Sukurtsal zk.....

Kontu zk.....

Urtebeteko harpidetza: Hego Euskal Herria eta Estatua: 6.500 pta. Ipar Euskal Herria eta atzerria: 11.500 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1.
40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52



Izan zaitez AIZU!ren harpidedun eta opari zoragarria lortuko duzu: LIBURU SORTA BAT!

Bai, ondo irakurri duzue!

Bai, 6 liburu, denak euskaraz, harpidedun egiten bazara. Ez galdu aukera!

izatea. Jokalari eta talde-sinbolo bezala hoberena da. Urteek egin duten bideak uzten digu, hain zuzen ere, bilakaera oso batek izan duen balioa.

Pilota valentziarraren egoera soziala oraindik zertxobait ezegonkorra da. Baina Genovesen fenomeno hazi esanguratsua izan zen errejimen politikoaren aldaketaren urtetan, ilusiozko indarra eman baitzion elezahar beltz eta nekazal munduaren ondare artean bizi zen kirolari. Genoves azaldu zenean valentziarren joko honetan nagusi zen inmovilismoa hautsi zuen, trinkete eta herrietako kaleak berriz ere jakinminez bete zituen. Ahitutako pilotaren munduan agertzekoan komunikabideak bultzatu zituen, bide batez, fenomeno berri baina historikoa baten berri ematera.



Euskal Herrian txapela jantzita, euskaldunak ongi etorri beroa eman ez. Genovesek Martinikorena eta Intxausperekin jokatu zuen maiz eta joan den urteko urrian jokatu zuen euskal jokalariekin azken partidua, Retegiren bikote izan zen.

Hauxe izan zen valentziarren kirol nazionala duin egiteko bere lehenengo zerbitzua.

Pilotarako izaera genetikoaren jabe, urteek eta bere pasioa praktikan jartzeak areagotu egin zituzten bere

ezaugarri naturalak. Profesional mailan bi urte zera-matzala, orduko jokalaria onenen aurka jokatu zuen, Eusebio eta Rovelleten aurka. Hilabete batzutan aurretik gabe gelditu zen eta izugarritzko erronkei aurre egin behar izan zien: bikote edo hirukoteen aurka jokatzea, esaterako, bakarrik edo laguntza kaskarrarekin.

Urrezko garaia

PILOTA valentziarrak urrezko garaia ezagutu zuen Genovesi esker, ia perfektu ziora iritsita. Jokatzeko eta izateko era bereziak beti eraman du aukeratuen artean laudatua izatera. Bere herriko profeta, Genoves, gure zoritxarrerako, *fin de race* bat izan da, frantziarrek dioten bezala. Sarasol, egungo txapelduna, ondorengo duina da, zalantzarik gabe. Baina Genovesek trinketea uzterakoan aro osoa eramango du berarekin batera. Airerako ezkerkada edo eskubiko bere kolpe heterodoxoa, tantoa bilatzeko hainbeste saiaketa edo trinketea duen presentzia harrigarria... orain-

dik gehiegi dira bere ikasle aurreratuenentzat ere.

Genoves valentziarren oroimen kolektiboaren parte da jada. Bere izenak izaera herrikoa hartu du, kirol mundutik at ere nagusitu dena. Bere izena goratzea denboraren suntsipenari aurka egitea da. Paco Cabanes gure *homenots* esanguratsu eta herrikoienetakoa da. Bere ibilbideak frogatzen du etorkizun bat izan dezakeela gure iraganak. Telebistako audientzia kopuruek beraiek hala diote, hauen kontura bizi den herri honetan. Pilota partiduek, eta banakako txapelketen finalek batez ere, azaltzen diote gure kultura herrikoia eta gure kirolak ikusentzunezkoetan leku bat dutela. Honengatik guztia-gatik, Genovesen izena ahaztuko lukeen herri bat galduta legoke. Idolo valentziarra izan da kirolaren pertsona esanguratsuak atzeritarak izan diren herrian. Valentziarren kulturak irauten duen artean iraungo du bere izenak ere.

TONI MOLA

EUSKALDUNON

GIDA

euskara+herria

zuri euskaldun!
behar duzun euskaldun hari erin aurkitzeko

19.000 fitxa

abokatuak, elkarteak, igeltseroak, iturginak, notarioak, ikastetxeak, nekazalturismoa, medikuak, ...

6.360 bizkaia
510 araba
2.150 gipuzkoa
305 nafarroa
610 lapurdi
80 zuhera
1.530 nafarroa

liburu batean

inoiz egin den euskaldunen datu-baserik osatuena

Liburudendetan salgai.
50 lib. 1.000 pta.

MIKOLETA
ARTEZ

Tel. (94) 416 66 60

Euskaltzaleen Elkarguneak, EA eta HBk Gasteizko udalaren ordenantza berria salatu dute

CUERDAREN HITZ POLITAK

Urtarrilaren 13an, «Vitoria-Gasteizko Udalean eta Udalerrian hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko Udal Ordenantza» onartu zuten udal gobernua osatzen duten alderdiek—EAJ-PNV, PSE eta UA—, PPren laguntzarekin. Hitz politikak bakarrik direla salatu dute herriko elkarteek.

EUSKALTZALEON Elkargunea (Gasteizko talde euskaltzaleen bilkurak) eta alderdi politiko batzuk (EA eta HB) ez daude oso gustura ordenantza hauekin. Elkargunearen ustez, udal ordenantza hauek euskararen

normalizazioaren aurka-koak dira, euskara normalizatzen lagundu baino, egoterra diglosikoan mantentzen lagunduko dutelako.

Horrelako kritika zorrotzak egitearen arrazoi nagusia da talde hauek Udala

beraiekin jolasean aritu den ustea dutela. Euskaltzaleon Elkarguneak duela bi urte deialdia egin zien talde euskaltzale eta alderdi politikoei denak batera euskararen ordenantzak prestatzeko. Eredu bezala Donostia-

ko ordenantzak hartu zituzten eta landu eta eztabaidatu ondoren, adostasunera iritsi ziren guztiak (elkartek eta UA, EA, EAJ—PNV eta HB).

Alkateak adostutakoaren gainean zerbait idazteko konpromezua hartu zuen, baina denbora pasa eta hitz soiletan geratu zen dena. Euskaltzaleen Elkarguneak presio egin zion Jose Angel Cuerdari bere hitza bete zezan, baina honek ez zuen erantzunik eman. Horren ordez, Europako hizkuntza ofizialei buruzko txostena idatzi zuen, egia esan, gai honekin lotura handirik ez zuena. Bi urte pasa dira era honetan eta, azkenean, hiru eguneko epean, hasiera batean Jose Angel Cuerdak azaldu zuen txosten bera onartu dute; hitzeman zuen lan batzordea osatu gabe geratu da.

Euskaltzaleon Elkargunearen ustez, ordenantza hau eskubideen aipamen hutsa da, inolako zehaztasun gabea. Gainera, ez da ez tresnarik jartzen, ez baliabiderik zehazten ez eta ekimenik burutzeko egutegirik agertzen ere. Elkarte honen ustez, gainera, garrantzi handiko gaiak ahaztu egin ditu ordenantza honek: eus-

Hizkuntz ofizialen Udal Ordenantza

1.go artikulua: Eusko Legebiltzarrak 10/1982 legean gatzelania eta euskararen erabilpenari buruz xedatutakoa garatzeko egiten da honoko hau.

2. artikulua: Gasteizko udalerri osoan aplikatuko da.

3. artikulua: Herriar guztiek dute eskubidea Udala eta Udal-administrazioarekin euskaraz nahiz erdaraz harremanak edukitzea.

4. artikulua: Ezin da baztertu inolaz ere herriar bat hizkuntz arrazoiengatik.

5. artikulua: Udaleko eta

Udal-administrazioako inprimaki guztiak elebidunak izan behar dute.

6. artikulua: Udalaren organu kolegiatuan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiliko dute. Itzulpena bermatuko da.

7. artikulua: Udal langileak euskalduntzen joan daitezen beharrezko neurriak hartuko dira.

8. artikulua: Gizarte bizi-tzako arlo guztietan sustatuko du Udalak euskararen erabilpena. Jarduerak eta zerbitzuak antolatuko ditu. Beka eta dirulaguntzak emango ditu eta

euskara sustatzea xede duten elkarteekin hitzarmenak sinatuko dituzte.

9. artikulua: Udalak Euskararen Aholku Batzordeari kontsulta egingo dio.

10. artikulua: Lantalde bat osatuko da ordenantzak betetzen diren ikusi eta proposamenak aurkezteko.

Xedapen gehigarria

Europar Batasuneko herriar batek ofiziala den hizkuntza batean jotzen badu Udalera, honek hizkuntza berean erantzun behar dio.

■ Bi urtez elkarlanean ibili ondoren, Jose Angel Cuerdak hasiera batean azaldu zuen testu berbera onartu dute

kararen giza-crabilpena bultzatzeko ekimenak, udal langileen euskararen erabilpena, besteak beste.

EA eta HB aurka

EA-KO Maria Carreraren ustez, ordenantza hauek esaten duten gauza bakarra euskara bultzatuko dutela da, baina bere ustez horretan geratzen da dena, ez da ezer zehazten: «Zebaitasun falta hori dela-eta arau honen balio eza nabarmen-tzen dugu». Azken finean, alderdi honentzat ordenantzen agiriak bi hizkuntzetan aterako direla ekarriko du soilik. «Printzipio bezala ongi dago, baina gaur egun honekin bakarrik ez dugu ezer egiten».

Arabako HB ere ez dago pozik ordenantza honekin. HBko Juan Karlos Molinaren ustez argi ikusten da euskararen aldeko jarrerarik ez dagoela: «Ez bakarrik UA, PP eta PSEk euskararekiko beti agertu duten jarreragatik, baizik eta EAJ-PNVk prozesu guztian zehar jokatu duen eragatik ere». Hau ikusita, udaletxetik etortzen diren erreziboak euskaraz bidali arte ez ordaintzeko kanpainia bat martxan jarri nahi dute. Euskaltzaleon El-karguneak ere *euskarari eta euskaldumoi dagokiguna aldarrikatzen* jarraituko du.

IDOIA TORREGARAI



JOXE JABIER IÑIGO

EKBko kidea

Euskalgintza osoaren elkargune zabala osatzea planteatzen du Euskararen Unibertsoko Talde Eragileak martxoko jardunaldietan. Zein garrantzi ematen diozu proposamen bati?

LAURA MINTEGI

Euskararen Unibertsoko Talde Eragileko kidea

Proposamena hirukoitza da. Lehenik, gure bu-niari galdetu nor garen, eta galdere ez da ma-kala. *Euskaldun* esaten dugunean, zer esan nahi dugun; zer den euskal kultura, zein ber-bazko kultura eta zein ez-berbazkoa, nondik gatozen, nora goazen, zein den euskararekiko jokaera ekologikoa. Hitz batez, gogoeta egitea. Euskararen inguruko diskurtsoa berritzeko ahapuntua eskaini nahi du Talde Eragileak.

Bigarren proposamena, euskalgintza osoa-ren elkargune zabala osatzea da. Euskararen Gizarte Erakundeak (EGE) osaturiko Kontseilu baten bitartez. Hau da, gure unibertso hau osatzen dugun talde, pertsona eta erakunde guztiek, gure ardurez mintzatzeko gune bat osatu. Kontseilu hau ez da inoiz sortu. Inoiz ez dira mintzatu, horretarako propio sorturiko bilgunean, euskalgintzakide guztiak, gune fal-

taz.

Hirugarren propo-samena ekitea da. Pentsaturikoa lehen-a-go, eta adosturikoa gero, praktikan ipin-tzea, plangintza par-tzial eta osoaren bidez.

Hitzetan gelditu gabe, osoagoak izan.

Proposamen hirukoitzaren garrantzia begi-bistakoa da. Ezin sailhets egin. Egia da inoiz baino arlo gehiagotan hedatu dela Euskararen Unibertsoa (irakaskuntza, hedabideak, ager-pen publikoak), baina egiagoa da hutsuneak inoiz baino nabariago agertzen direla (osasu-na, justizia, merkataritza, industria). Inoren apendizterik izan ez badugu nahi, unibertsoa-ren proposamenari ekitea ezinbestekoa da.



U R R E A



● Onatiko Berba taldeak herriko euska-rari buruzko eskuliburua osatuko du. Onatiera eta batueraren arteko berdinta-sun eta desberdintasunak azpimarratu na-hi dira. 1998ko udaran aurkeztu nahi dute.

G O R O T Z A



● Euskararentzat justizia eskatzeagatik epaitegira deitu dituzte 8 gazte. Fiskalak 500.000 pezetako isuna edo lau hilabe-teko kartzela-zigorra eskatu du zazpiren-tzat eta etxeko arrestatzea azkenarentzat.

«Aitzolek inon ikusi ez dudan ezaugarria zuen, gazteria promozionatzen zuen»

Auñamendi argitale-txearekin lotuta egon da bizitza osoan Bernardo Estornes Lasa. 89 urte dituela, bere bizitzako xehetasunak jasotzen dituen liburua argitaratu du eta omenaldiak jasotzeko garaia iritsi zaio izabarrari.



Txilen 18 urte pasa zituen erbesteratuta Bernardo Estornesck. (Argazkia: A. Elozegi).

Auñamendi argitale-txeak egin duen lanik garrantzitsuena «Enciclopedia General del País Vasco» da. Horrelan eman dituzu zure bizitzako urte asko.

Orain gertutik jarraitzen dut, baina alaba da zuzendaria eta semea ari da maketazioan. Hogeitaz baina gehiago daramatza argitaratzen, baina lanean aurretik hasi ginen, datu-bankua egin zen. Argazkiak ateratzen, adibidez, urteak pasa ditugu asteburuero herriz

herri ibiliz. Hasierako alee-tatik urte asko pasa dira eta argazkietan ere hori nabari da, horregatik jartzen dugu beti data.

Noiz bukatuko duzue entziklopedia?

Urtean bi ale eta erdi kaleratzeko zailtasunak ditugu. Urte pare batean bukatuko dugu. Azkenekotan dago. Orain Eusko Ikaskuntza di-

gitalizatzen ari da. Guztira 60 ale inguru izango dira, 9-10 ale nireak dira, literaturakoak bost, baina bederatzi langile ditugu eta ia dirulaguntzarik gabe irauten dugu. Nire bizitzako obra da, gerra aurretik nuen buruan.

Nola sortu zen entziklopediaren ideia?

Aspaldiko ideia zen. Entzi-

klopedia Katalanak entziklopedia orokorra hartu eta gai katalana erantsi zuen. Gure kasuan ez da hori gertatu, euskal gaia da garbigarbia. Herriaren gaia duen beste bakarra ezagutzen dut, judutarrena. Entziklopedia hau ez da orokorra, euskal gaia du bakarrik eta kanpora zabaldua dago, Amerikara batez ere. Bakarra da bere

jeneroan eta zaila izango da berdintzen.

Argitalpen munduan berrikuntza ugari izan dira azken urteotan. Nola bizi dituzu aurrerapen horiek?

Lehen jende askoz ere gehiago behar zen. Orduan tipoz tipo, eskuz, artisau modura egiten zen lana. Orain diska batean liburu osoa sartzen da eta CD-ROMean argitaratzen da. Teknologia berriak zahartuta gelditzen dira berehala. Interneti buruz asko dakien bat etorri zen lehengoan eta ez nion ezer ulertzen. Orain lekuz kanpo nago asmakizun iraultzaile berriekin.

Eta teknologia berri horiek liburua ordezka al dezakete?

Ez dakit. Datu-bankua fitxatan bestea baino ziurragoa da, nire iritziz. Mekani-koki oso zaila da aukeratzeara. Nafarroako Gobernuak atera duen liburu batek 15-20 laburdura ditu, baina nork ikasten ditu horiek guztiak? Hemen datu-banku oso handia dugu, milioi erdi fitxatakoa. Erosten diren liburu guztietan gauza interesgarriak azpimarratu eta fitxetan sartzen dira. Oso baliagarria da. Liburutegi partikularra da, nireak 12-14.000 liburu izango ditu. **Entziklopediaz aritu gara, baina beste lanak baidituzu zuk idatziak.**

Lehen liburua 1927an idatzi nuen, «Erronkari». 80 argitalpen ditut idatziak: historia asko, nire bailararen, hizkuntzaren, artearen, ohituraren... gainean, takigrafia metodoa eta guzti. Orain Nafarroako Gobernua gaztelera-erronkaria hiztegia argitaratzen ari zait. 25.850 azeptzio bildu ditugu bi ale-tan. Gerra aurretik hasi nin-



«Merkataritza akademiako txartela bi hizkuntzetan jarri genuen Legazpi kalean. Donostian euskaraz jarritako lehen errotulu handia izan zen».
(Argazkia: Alberto Ellosegi).

tzen lan horretan Beñat Idatziak argialetxearekin, baina gerran inkautatu ziguten dena, etxea ere.

Ezagutu al zenuen Erronkarin euskaraz egiten zuen jendea?

17-18 urte nituela egin nuen euskarazko hitzen bilketa. Hitz egiten zen euskaraz. Aitaren aldeko amona euskalduna zen, amaren aldekoa, berriz, ez nuen ezagutu. 1926an erronkarierako esaldiak eta aditza jaso nituen, hiru tratamenduetan: hi, zu (zuket esaten zuten) eta ezezagun helduari. Ez nekien euskaraz, baina amonei galdetzen nien haurrei, helduei eta zehaz-

gabe nola esango lituzketen espresioak. «Nas» esaten zuten «naiz»-en orde. «Izan», «eduki», «egon», «etorri» eta beste aditzak jaso nituen. Familian ez dugu euskaraz egin, baina Tartaloren ipuina kontatu zidaten itzulita. Eta konturatu gabe 200 bat hitz euskaldun erabiltzen genituen gaztelaniaz ari ginenean.

Ikasteko beharra edo gogoa ez al duzu inoiz sentitu?

Prezedente txarra daukat eta ez dit hizkuntzak ikasten uzten. Karreran frantsesa, inglesa eta alemana ikasi nuen eta euskara nire kontura ikasi nuen Huerva

ibaiaren ertzetan Arrigarai-ren gramatikarekin. Baina gutunen komertzialitaterako erakusten ziguten, ez hitz egiteko, eta hori oso garrantzitsua da. Han ezagutu nuen «Zeruko Argia» eta Eusko Ikaskuntzako bazkide egin nintzen. Txilen emazteak euskaraz egiten zien lau seme-alabei eta nik ez nien inoiz gaztelaniaz hitz egin. Haurren hiztegia oso sinplea da, erraza. Denek ikasi zuten euskaraz, ez zekiten erdaraz hona etorritakoan. Izen euskaldunak izateagatik espedienteak izan genuen, gainera. Miren Idoia Maitenari Maria jarri zioten, Itziarri Maria Itziar,



«Txilen emazteak euskaraz egiten zien lau seme-alabei eta nik ez nien inoiz gaztelaniaz hitz egin. Haurren hiztegia oso sinplea da, erraza. Denek ikasi zuten euskaraz, ez zekiten erderaz hona etorritakoan». (A.: A. Elozegi).

Amaiari utzi zioten arruntagoa zelako eta Garikoitz Mikeli Miguel Garikoitz. **Zaragozara joan zinen 1922an merkataritza ikastera. Handik biru urtera familia osoa joan zen bara. Ikasketak bukatu ondoren, gaztetan, etorri zinen Donostiara.**

1929an etorri nintzen eta asko gustatu zitzaidan, harrituta gelditu nintzen bere edertasunarekin. Krisi handia zegoen, baina ni baiko-rra nintzen. Eusko Ikaskuntzako bulego-buru jarri ninduten, RIEVen orduan hasi nintzen kolaboratzen eta merkataritza-akademia jarri

«**Datu-bankua fitxatan edukitzea sistema berrietan baino ziurragoa da; Auñamendin ditugun milioi erdi fitxak oso baliagarriak dira»**

nuen. Bi hizkuntzetan jarri genuen txartela. Euskaraz jarritako lehen errotulu handia euskaraz izan zen, Legazpi kaleko balkoian. Abertzaletasunak ez zuen indar handirik orduan Donostian, hastapenetan zegoen, garatu gabe. Baina buruan argialetxea nuen, 1934an anaiari pasa nion akademia eta Auñamendin hasi nintzen. Handik urtebetera Eusko Ikaskuntzako bulegari lana utzi nuen arrazoi berberetatik.

Eta zertan aritu zinen Txilen 18 urtetan?

Parisen nuen familiak mundu osoan lan egiten zuen lurrindenda zeukan. Txilen ordezkari izatea proposatu nien eta horrela hasi nintzen. Gerra mundiala hasi zen Frantzia eta deskonektatuta gelditu ginen. Lurrindenda jarri genuen orduan Santiagon. Bizitzeko ematen zuen. Karreran lehengaiak eta kimika piska bat ikasi nuen. Ontziak erosten nituen eta kolonia ontziratu gabe saltzen nuen, bainuan botatzeko. Ontzi erabiliak erosten nituen zabortegitik. Ezka denda ere jarri nuen, lurrindegia utzi gabe. Handik atera zen dirua.

Kultur girorik bazegoen errefuxiatuen artean?

Errefuxiatuen giroa Euskal Etxean ezagutu nuen. Santiagon Euskal Etxe berriko

akzioak ditut. Liburutegia egin nuen segituan hemen-
dik bidaltzen zizkidaten li-
buruekin. «Batasuna» aldiz-
karia kaleratu nuen
1941ean, Txileko euskaldu-
nen aldizkaria.

**Hona itzultzeko baimena
nola lortu zenuen?**

Asko kostatu zitzaidan lor-
tzea. Anaia Jose Caracasen
zegoen eta Espainiako Go-
bernuko delegazio bat joan
zen merkataritza-akordio
bat sinatzera. Anaiak minis-
tro bat ezagutzen zuen eta
hari baimena eskatuz lortu
nuen 1958an.

**Zaila izan al zen argita-
letxearen hasiera?**

Donostiara itzuli eta bazkide
bakoitzak 500.000 pezeta
jarri genituen hasteko, alde
batetik Estornestarrok eta
bestetik Itxaropena inpri-
mategikoei. Orduan diru
asko zen. Kolonia ontzietat-
tik atera zen diru hori. Orain
gazte jendeak ikasten du,
baina ez du lanik. Ekimena
eduki behar da, erabaki eta
arriskatu egin behar da. Hasi
eta handik hamar urtera hasi
ginen entziklopedia kalera-
tzen.

**Eusko Ikaskuntza eta
Auniamendiko lanari es-
ker Lekuona, Barandia-
ran, Mitxelena, Urkijo...
denak ezagutu dituzu.
Jakintsu belaunaldi ba-
rekiko lotura al zara?**

Denak ezagutu nituen. Mi-
txelena itzuli zenean eza-
gutu nuen, lehenago gaztea
zen. Oroimenen liburuan
nire 100 ezagun ospetsuen
zerrenda jarri dut.

**Eta nola ikusten duzu
gaur egungo entziklope-
dien eta hiztegien gerra?**

Ez dakit. Dirulaguntzak ba-
dituzte, baina zail daukate
euskaraz, irakurle euskal-
dunak askoz ere gutxiago
direlako.



**Dirulaguntza ofizialak
aipatu dituzu. Zuek izan
al dituzue?**

Hasieran bagenituen nola-
baiteko dirulaguntzak, bai-
na oso urriak. Gaztelania-
euskara hiztegia badugu
prestatuta eta kaleratzen ere

hasi ginen. Milioi pezeta as-
ko inbertitu genituen eta bi
milioi eman zizkiguten. Be-
raz, geldirik dago laguntza
faltagatik.

**Eta euskaraz argitaratu
al duzue?**

Euskaraz batez ere liburu

«Hunkipenaz segituan
errekuperatzen naiz.
Oraindik gauza asko
egiteko dagoela pentsatzen
dut». (A.: A. Elosgi.).

NORTASUN AGIRIA

Maiatzaren 11n 90 urte beteko ditu ● Hala
ere, lanean jarraitzen du, egunero hiruzpalau
ordutan egiten du lan ● Iñaxi
Zubizarretarekin ezkondu eta lau seme-alaba
dituzte: Idoia, Garikoitz, Itziar eta Amaia;
lehen biak argitaletxean ari dira, bere bidea
jarraitzen ● Bizitza osoan EAJn egon da

afiliatuta, baina kulturgintza jarri du beti politikagintzaren aurretik
● Euskal gaiari buruzko 80 liburu ditu argitaratuak ● Eusko
Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen 1992an eta
hurrengo urtean ohorezko euskaltzain izendatu zuten ● Duela
hilabete gutxi Izaba bere jaioterriaren omena jaso zuen anaiekin
batera, bizitzako oroitzapenak aurkeztu zituen bertan

